

AURREKONTU ETA KONTABILITATE ZERBITZUA

Txosten-zk.: 04/2019/030

FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN GAINEKO KONTROL EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENA; FORU DEKRETU HORREN BIDEZ, BIZKAIKO ESKOLA KIROLAREN 2019/2020KO DENBORALDIRAKO PROGRAMAREN ARAUTEGIA EMAN DA.

Txosten honen xedea ondokoa da: 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileak onetsi zuen Zerga arloari buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Beteginaren 143 eta 144. artikuluetan ezarririk dagoenaren arabera, Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuaren eskumenekoak diren aspektuekiko eragin ekonomikoa eta finantza eta aurrekontu arloko eragina ebaluatzea.

Foru dekretu proiektuaren xedea da arauak ezartzea, Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan 2019/2020 denboraldirako jasota dauden kirol jarduerak arautzeko.

Eragin ekonomikoa

Proposamena egin duen Sailaren memorian adierazienez, proiektu honek eragin ekonomikoa izango du, zeren eta eskola kirolaren programan parte hartuko duten pertsonen finantzatu egingo baitzaie programa horretan esku hartzeak eragin ditzakeen gastuen zati bat.

Aurrekontuarekiko eragina ekitaldian

Proposamena egin duen Sailak aurkeztu duen memorian erasoenez, programa hau burutzeko 270.000 euroko gastua (BEZ barne) aurreikusi da. Gastu hori urte anitzeko 0403 341108 23701 2007/0147 aurrekontu-partidari dagokio, eta haren kopurua era honetara zenbatuko da:

- 2019an: 54.000 euro
- 2020an: 135.000 euro
- 2021ean: 81.000 euro

Beste alde batetik, programaren inplementazioak ez du 2019ko aurrekontuetan aurreikusirik dauden kostuekiko gastu gehigarririk eragingo; horrezaz gainera, ez dago beste erakunde batzuen finantza-iturri berezirik.

Aurrekontu-agertokiarekiko eragina

Urte anitzeko partida bati (1) dagokion programaz ari gara; zehazki, programa hori 2019-2020ko epealdirako da.

Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen ondoriozko arautegiaenez, gastu horri hurrengo ekitaldietan ere eutsiko zaiola ulertzen da.



Ukitzen den gastu-programarekin loturik dauden eta indarrean dauden helburu, adierazkari eta ekintzekiko eragina

Txostenaren xede den dekretu-proiektuaren aplikazioak ez du ukitzen den gastu-programari doazkion helburu, adierazkari eta ekintzetan aldarazpenik eragingo.

Ondorioa

Arestion azaldutakoarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena eta bere 132 artikuluan ezarritakoarekin, ez dago arazorik foru dekretuaren proiektu hau izapidetzeko.

PROPOSAMENA EGIN DUEN SAILAK AURKEZTU DUEN AGIRI-SORTA

- Foru dekretuaren proiektua
- Bidezkotze-memoria

Sin./Fdo.: KOLDO ARTARAZ MARTIN - 2019-07-11
AURREKONTUEN PLANGINTZA ETA AZTERKETA ATALEKO BURUA
JEFE/A SECCIÓN DE PLANIFICACIÓN Y ANÁLISIS PRESUPUESTARIO

Sin./Fdo.: KOLDO ZABALA BILBAO - 2019-07-12
AURREKONTU ETA KONTABILITATE ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A DE SERVICIO DE PRESUPUESTOS Y CONTABILIDAD